SOCIETAT DOCTOR ALONSO

El Desenterrador.

Hitzen indusketarako gida

GORPUTZALDIAK
HEZKUNTZA ETA DANTZA ARTEAN

El Desenterrador gorputzaren eta hitzen inguruko sorkuntza eta ikerketa proiektua da. Diziplina anitzeko talde batek (Jordi Claramonte, Jaime Conde Salazar, Barbara Sánchez, Silvia Zayas, Lluc Baños) egindako prozesua, Societat Doctor Alonsok sustatua (https://doctoralonso.org/es/societat/)

Prozesu hau honako lankidetzaren bitartez garatu da: Sofia Asencio, Gorputzaldiak, Adierak Dantza eta Hezkuntza Elkartea eta Artaziakoop.

Diseinu grafikoa: Maite Zabaleta
Itzulpen-lanak: Aztiri

Lan hau Creative Commons [CC BY-SA 4.0] lizentziapean argitaratua dago. Libre zara materialetik abiatuta edozein bitarteko edo formatutan kopiatu, birbanatu, birnahastu, eraldatu eta sortzeko, baldin eta egilea nor den aitortzen baduzu eta lizentzia berarekin partekatzen baduzu.

Babeslea:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜÍSTICA

5 Hitzen indusketa

6 Erabilera-eskuliburua

6 Espazioa

6 Iraupena

7 Parte-hartzaileak

7 Maieutika

9 Argibideak

9 1. argibidea. Hasierako isiltasuna
11 2. argibidea. Besteari jarraitzea
12 3. argibidea. Galdetzea
14 4. argibidea. Ez erabili horrelako hitzik: ‘nik’, ‘pentsatzen dut’, ‘uste dut’
14 5. argibidea. Horrelako hitzak saihestea: ‘zeren arabera dagoen’, ‘bai, baina…’, ‘hori erlatiboa da…’
16 6. argibidea. Hitz edo pentsamendu bat kristalizatzen denean
17 7. argibidea. Indusketan hitza hezurmamitzea
17 8. argibidea. Bereizketa bat egitea
18 9. argibidea. Aulki hutsa

20 Praktikaren gidaria

20 Induskatu beharreko hitzak aukeratzea

21 Indusketa publikoa

22 Beste ohar interesgarri batzuk

26 Induskatzeko erreminten zerrenda

"EL DESENTERRADOR"

Hitzen indusketa

Hitzen indusketa araututako solasaldi bat da: parte-hartzaileak arau horiek ikasten doaz, eta hitz jakin bat lurpetik ateratzeko ahalegina egiten da solasaldian zehar.

Hitzen indusketa ez da emaitza argi, zehaztu eta itxi bat bilatzean datzan jarduera finalista bat. Garrantzitsua da hori azpimarratzea. Indusketa bere baitan zentzua duen lan bat da. Kasu honetan, praktikan datza dena, eta, banako nahiz talde gisa zerbaitek gertatu behar badu, praktikan gertatuko da.

Guztion artean lantzeko proposatzen den hitzaren balioan, beharrean eta zentzuan ahalik eta sakonenera iristen ahalegintzea da asmoa. Indusketak denbora-tarte zehatz bat iraungo du, eta gidari batek zuzenduko du beti; hark lagunduko dio taldeari lanean.

Kontua ez da, beraz, hitza definitzea; horretarako, baditugu jada hiztegiak; aitzitik, hitzaren sakoneko izaerara hurbiltzea da xedea, ezaguera kolektibo bat sortzeko zereginean misterio baten bila goazela onartuz, helburu zehatz batekin: induskatzaileen taldean hitz horrek duen erresonantzia hautematen saiatzea, indusketaren unean bertan.

Aretoaren erdigunean, sei aulki biribilean jarrita. Eta aulkiz osatutako beste bi zirkulu inguruan.

Erdiko sei aulkietan, bost induskatzaile lanean eta euren artean hizketan ari dira, eta aulki bat hutsik dago beti. Bost aulkiko zirkulu horretan baino ezin da hitz egin.

Haren inguruan, bigarren zirkuluan, beste induskatzaileak daude, modu aktiboan entzunez jarduera horretan arreta osoa jarrita; eta erdiko zirkuluan sar daitezke, indusketako lanean sakontzeko beharrezkoa edo egokia dela iruditzen bazaie. Erdiko zirkuluan induskatzaile berri bat sartzen bada, zirkulu horretan zegoen norbaitek joan egin beharko du. Hortaz, ahotsak eta pertsonak berritzeko etengabeko dinamika bat da, eta lana eta hizketaldia induskatzaileen talde osoak partekatzen ditu.

Solasaldi arautuaren mekanismoaren bidez hitzaren jatorrizko eta sakoneko esentzia hori ikertzeko prozesu bateratu horretan agertu eta azaleratuko dira, hain zuzen ere, hizkuntzaren, hitzaren eta gizakiaren mekanismoak, «zentzuak», kontraesanak eta paradoxak, hizkuntzaren erabilera komun eta partekatuan.

Zenbait erabilera-arau asmatu ditugu, solasaldi horrek iritzi pertsonalaren edota eztabaidaren lurraldetik urrun dagoen elkarlana ahalbidetu dezan, iritzi edo eztabaida horien jatorria ezaguera sortzearen ikuspegitik alferrikakoa den lehia bat denean, edo arrazoia izan nahi izate hutsean datzanean.

Erabilera-eskuliburua

Eskuliburu honek ahalik eta xehe eta zehatzena izan nahi du, eta erabilera-arauak eta horiek kasu eta egoera bakoitzean nola aplikatu jakiteko oharrak ere bildu nahi izan ditugu bertan. Baina, edozein jarduera bizitan gertatzen den bezala, hitzak induskatu nahi dituen pertsona talde bakoitzak topatuko dio zentzua arau bakoitzari, eta bere harremana ezarriko du harekin, denboran zehar baliabide hauek lantzen doan heinean.

Hitzen indusketa zeregin bizia da, eta indusketa bakoitzak bere bidea eta unea sortzen ditu. Hortaz, erabilerarako bitarteko hau beharrezkoa den esparru orokor gisa hartu behar da, baina, aldi berean, talde, testuinguru eta egoera bakoitzari egokitzeko baliabide malguen sorta gisa ere hartu behar da.

Bada garrantzi handiko alderdi bat: talde batek egiten dituen lehen indusketetan, gidariak (aurrerago hitz egingo dugu oinarrizkoa den figura honetaz) arauak bete daitezen arduratu behar du, hala, talde osoak lan-esparru komun bat izan dezan lehenbailehen.

Lanean aurrera egin ahala, arau horiek malgutzen joan daitezke, eta ahozko hizkuntzaren indar biziak eragin diezaien utzi.

Espazioa

Askotariko espazioetan landu dugu hitzen indusketa. Badute ezaugarri komun bat leku horiek, eta, beraz, beharrezkoa: gutxieneko argitasun bat izan behar du espazio horrek, parte-hartzaile guztiak hartzeko gai izan behar du (aulki bat induskatzaile bakoitzarentzat gehi hutsik dagoen aulki bat), eta testuinguru isila eta ahalik eta lasaiena behar dira.

Iraupena

Indusketa bakoitzaren iraupena desberdina izan daiteke, taldearen, testuinguruaren edo unearen arabera. Talde bat pixkana tresnak erabiltzen ikasten ari bada, gero eta indusketa luzeagoak egin ditzake.

Tresna hau erabiltzen hasteko, 30 bat minutuko indusketa egin daiteke. Gerora, indusketan eta induskatzaileengan konfiantza handiagoa dutenean, 60 edo 90 minutuan jardun dezakete lanean.

Gidariak emango dio hasiera beti indusketari, induskatuko dugun hitza esanez, eta hark emango dio amaiera lanari ere, egoki iruditzen zaionean. Gidariaren irudia txandakakoa izan daiteke, eta, eskuliburu honetako arau guztiak bezala, esparru orokor gisa hartuko da, taldearen idiosinkrasiaren arabera egokitzen joan baitaiteke gero.

Parte-hartzaileak

Hitzen indusketa batean, edonork parte hartu dezake. Egiaz, parte-hartzaileen jatorri kulturalean, adinean eta jatorrizko lanbidean zenbat eta aniztasun handiagoa izan, are aberatsagoa izango da solasaldia.

Denek dute harreman berezia hizkuntzarekin, bakoitzak berea, eta, hortaz, ahots guztiak ongi etorriak izango dira indusketetan; izan ere, indusketa bakoitzaren konplexutasuna eta sakontasuna lotuta daude zuzenean indusketa horretako induskatzaile bakoitzarekin.

Maieutika

Etimologikoki, 'maieutika' hitzak «erditzea, ume bat mundura ekartzea» esan nahi du, eta Sokratesen jarduera filosofikoan inspiratuta dagoen tresna bat da.

Taldeko indusketaren aurretiko jarduera bat da, banan-banan induskatzaileak prestatzeko balio duena.

Bi pertsonak hitz bati buruz hitz egitean datza, baina hirugarren bat ere tartean izanda; *behatzaile* edo *errelatorea* da hirugarren hori, eta beste bi parte-hartzaileen arteko elkarrizketa horretatik garrantzitsua den oro jasoko du idatziz.

(Teknika hau behin baino gehiagotan lantzen bada, rol horiek aldatuz joango dira, hala, elkarrizketa horren barneko posizio guztiak probatu ditzaten.)

Elkarrizketa horretan, parte-hartzaileetako batek galderak egin ditzake soilik, eta besteak, berriz, erantzun baino ezin du egin. Inoiz ez du erantzungo beste galdera batekin.

Maieutika sokratikoan bezala, jarduera honen ikuspegiak asmo hau izan behar du: galderak egiten ari dena erantzuten ari denari laguntzen ari da, haren ondoan dago, hitzarekin duen harreman pertsonala «munduratu» dezan laguntzeko. Beharrezkoa da galdetzen ari denak lagunak ematen dizkion erantzunetara egokitzea galdera horiek, emandako hitzaren inguruan bestea egiten ari den indusketa pertsonalean hura gidatzeko kontzientzia hartuta. Haren ikusmen-eremua irekitzen saiatuko da, bere pentsamendua hobeto ulertarazten, leuntzen. Haren zeregina besteak bere barrenean indusketa ondo zainduta eta dagokion erritmoan egin dezan lortzea da.

Galdetzen duenaren zeregina da lagunaren azken erantzunetik abiatuta galdetzea beti, galdera erretorikoak edota bestea aurrez zehaztutako pentsamendu- edo erantzun-eremu batera eramatea bilatzen duten

galderak saihestuz. Besteak esan duen horretatik «oso gertukoak » galdetuko zaizkio, horrela benetan induskatzeko eta sakontzeko.

Erantzuten duenak zeregin erraz bat bete behar du, itxura batean: egiten zaizkion galdera guztiei eta bakoitzari erantzutea.

Elkarrizketaren erritmoak «lehia» formatua edo «telebistako» abiadura eta tonua hartu ez ditzan saiatu behar dute biek.

Intimitatezko gune bat eraikitzen ahaleginduko dira, eta, gune horretan, onartu eta errespetatu egingo dira erantzun batetik bestera bitarteko isiluneak edo galderen artekoak.

Elkarrizketaren iraupena 20 minututik 30era bitartekoa izango da.

Hirugarren pertsonak, errelatoreak, eta kontuan hartuta solasaldi horretan ezin duela hitz egin, garrantzitsuak iruditzen zaizkion alderdi guztiak jasoko ditu idatziz, solasaldiko edukiari lotuta nahiz haren formari, musikaltasunari, tonuari, gorputz-jarrerari eta isiluneei dagokienez.

Hiruko talde guztiek beren solasaldiak amaitu dituztenean (hitz berari buruz hizketan jardun dutenean), talde handian bilduko dira, eta erralatoreen txanda etorriko da orduan.

Errelatore bakoitzak solasaldia nola ikusi duen eta zer nabarmendu duen kontatuko dio taldeari.

Une egokia da egindako galdera motei buruz hitz egiteko.

Ohartu behar dute galdetzen duenak behin eta berriro erantzun jakin bati buruz galdetzeak sakontzen laguntzen duela.

Konturatu behar dute askotan galdetzen ari garela ematen duela, baina, azken batean, baieztapen bat egiten ari garela, galdera forma hartuta. EZ/BAI motako erantzun bat dakarten galderak emankorrak diren aztertu behar dute.

Ikusi behar dute zeinen emankorra den adierazi diren gauzen kalitateaz galdetzea.

Solasaldian agertzen diren xehetasunez galdetzea ere egokia da.
Argi dago beharrezkoa den aurretiazko jarduera horrek lagungarri izan behar duela, induskatzaileek galdera bat egiteak zer dakarren aztertu dezaten berriro. Galdera ulertzen saiatu behar dute, baieztapen bakoitzean sakontzen laguntzen duen tresna gisa hartuta. Ezjakintasunetik abiatuta zer galdetu behar den ikusi, halako xehetasun bati buruz lehen aldiz galdetuko balute bezala.

Izan ere, taldean induskatzen hasten garenean, galdera izango da tresnarik garrantzitsuenetakoa, gerora ere ikusiko dugunez.

Eta, horrez gain, behar-beharrezko praktika bat da, nire kideak adierazi duten horretatik «oso gertu» lan egitea zer den jabetzeko. Geroxeago ikusiko dugu nire kideak bere ekarpenekin azaldutako horri «jarraitzeko» ideia horixe dela, hain zuzen, hitzen indusketako jarduera honen funtsezko zereginetako bat.

(Ikusi: «Mayéutica. Un ejemplo», 216. orrialdea)

Argibideak

Bederatzi argibideko sorta hau urtebete iraun zuen ikerketa-prozesu batean barnean jorratu zen pixkana. Beraz, hasiera-hasieratik jardunbide honi erabat lotuta landu diren argibideak edota tresnak dira.

Eskuliburu honi ekitean azaldu genuenaren ildotik, indusketa nola landu behar den azaltzen duten ildo sendo eta argiak dira, hala, bila gabiltzan hori lortu dezagun; hots, elkarrekin eta hainbat ahotsetara osatutako ezagutza lantzeko gune bat.

Argibide horiek ezartzen dituzten mugak, jakina, aukera bakarra dira lanerako gune aske bat sortzeko, non indusketa berri bakoitzean urratzen den bidaia kontzeptual bateratua ahalik eta ireki eta ustekabekoena izango den.

Bestalde, guztiok berdin-berdin bete beharreko jarraibide batzuk izateak maila guztietan halako zeharkakotasun bat sortzeko aukera ematen du, eta hori ere oinarrizkoa eta gakoak da proposamen honetan. Induskatzaile oro, hizkuntzarekin eta kultura-ikaskuntzarekin duen harremana duela ere, baliagarria da erabat, eta beharrezkoa.

Horrenbestez, indusketa bat egiteko, induskatzaileei gauza bakarra eskatuko zaie: argibide edo jarraibide horiek ahalik eta leialtasun handienaz betetzen ahalegintzea.

1. argibidea. Hasierako isiltasuna

Hasieran, beharrezkoa da talde osoa isilik egotea denbora-tarte luze samar batez, proposatutako hitzari buruz zerbait esateko inork esku hartu aurretik. Induskatzaile guztiei sintonizatzeko, barneratuta ditugun aurreiritziak eta aurrez landutako ideiak zokoratzeko eta kontzentrazioa sustatzeko espazioa eta denbora emateko balio du.

Lehen argibideari buruzko oharrak:

Guztiak aulkien zirkuluetan esertzen direnean, lehen lau induskatzaileak erdiko lehen zirkuluan kokatzen direnean eta arduradunak proposatutako

hitzari buruz inork ezer esan aurretik, behar-beharrezkoa da guzti-guztiak isilik egotea luzaroan.

Hainbat aukera emango ditu horrek. Hasteko, induskatu beharreko hitza agertu orduko, automatikoki eta oso azkar, induskatzaile bakoitzari hainbat ideia etorriko zaizkio burura hitz horrekin lotuta.

Induskatze-lanak badu oinarrizko xede bat, beste zenbaiten artean: taldean nahiz banaka, ustekabeko pentsamendu-bide eta -guneetatik ibiltzea, hitz bakoitzari buruzko begirada berriak sortu ahal izateko; hori kontuan hartuta, hasierako isiltasun horrek halako galga moduko bat jarri nahi die induskatzaileei, induskatu beharreko hitzari dagokionez beren induskatze-lana ez dezaten hasi beren barrenean jada erabat finkatuta duten pentsamendu edo ideia batetik abiatuta.

Jada ezagutzen dugun toki batetik hasten badugu indusketa, ziurrenik jada ezaguna zaigun pentsamendu-eremu batean jarraituko dugu.

Hasierako isilune horrek, gainera, indusketak hartzen duen erritmoak zer-nolako garrantzia betetzen duen ikusarazteko balioko du, bidaia hori eraikitzeko orduan funtsezkoa den elementua baita. Hizkuntzaren musikaltasuna ere osagai garrantzitsua da, hitz horrekin adierazten ditugun edukiak bezainbeste, edo gehiago. Horrenbestez, hasierako isiltasun-tarte hori entzumena zorrozteko gonbita da, alde batetik, eta, bestetik, aukera eman behar die induskatzaile guztiei erritmo komun bat hartuta bat egin dezaten.

Bestalde, argi esan behar da honaino iritsita isiltasuna ez dela oinarrizko elementua indusketaren hasieran soilik.

Ildo horretatik, jabetu behar dugu gehiago kokatu behar dugula gure burua isiltasun horretan ezer esatean baino. Hustu, hondeatu eta lurra atera..., ideia horiek landu behar ditugu. Gehiago da huste-ekintza bat hitzez, irudiz edo gauzez betetze bat baino. Hutsune bat sortzea bezalako zerbait litzateke, edo erresonantzia-kutxa bat sortzea bezalakoa. Hortaz, gehiago egin dezake isiltasunak gehiegi hitz egiteak dakarren zaratak baino.

Isiltasunak «induskatu» egiten du, esan ohi dugu. Hau da, indusketa jakin batean ari garela, taldeak gaitasuna izan behar du une askotan norbaiten esku-hartzearen ostean sortzen den isiltasuna errespetatzeko; izan ere, isiltasun horrek bere kabuz adierazten duenak indusketan sakonagora iristeko aukera emango digu, hori bera hitzez adierazi nahi bagenu lortuko genukeenak baino.

Mundu guztiak errespetatzen duen isiltasuneko espazio hori, berez, geldialdi gisa hartu dezakegu. Ez da ebaki bat edo hutsune bat; erresonantzia-gune bat da, eta esan berri dugun horren oihartzunari zulatzeko bidea eman behar zaio horren bidez; taldeari beherago joaten lagunduko dio. Erabateko geldialdia da, eta eutsi egingo zaio. Izan ere,

induskatzaile guztiak beren barrenean eta isilik esan beharreko hurrengo elokuzioa bilatzeko ahaleginean lanean ari diren unea da.

2. argibidea. Besteari jarraitzea

Besteek proposatutako argumentuetan sakondu behar du induskatzaile orok, debate edo eztabaidarako egoerak sortzea saihestuz.

Balioa eman behar diet kideen "palakadei", ahozko elokuzioei, eta, ahal dudan guztietan, haien esku-hartzeek iradokitzen duten bide edo tokietatik jarraitzen saiatuko naiz. Erreminta honi gogor aurre egingo diot, soil-soilik, bide horrek taldea indusketaren xedetik erabat desbideratzen duela ikusten badut.

Bigarren argibideari buruzko oharrak:

Ziurrenik, hauxe da argibiderik garrantzitsuena guztien artean. Izan ere, induskatzaile bakoitzak lantzen ari diren hitzari buruz aurretik buruan edo ikasita dituen ideien mundutik irteteko erabil dezakeen oinarrizko tresna da. Eta induskatzen ari denean, aukera izango du hitz hori modu berri eta adierazgarri batean esateko, imajinatzeko eta ulertzeko.

Lehen ere aipatu dugunez, hitza agertu orduko, saihestezina da hitz horri buruzko hainbat ideia edo esaldi etortzea burura.

Baina, beste induskatzaile batek hitzari buruz zerbait esaten badu, nire lana nire ideia horiek guztiak berehala ezabatzea da, eta ikaskidearen esku-hartze horretatik abiatuta pentsatzen hastea. Horrelaxe jarraituko da indusketa guztian zehar.

Besteari jarraitzeak esan nahi du, gainera, induskatzaile bakoitzak esku hartzen duenean bere burua besteen aurrean pertsona azkar, original edota berezi gisa agertzeko ahalegin oro erro-errotik erauztea. Lagunak esan duen horretatik oso gertu dagoen zerbait esatea sinpleegia dela irudituko zaigu agian batzuetan. Baina horixe da elkarrekin aurrera egiteko modua.

Behar batekin du zerikusia argibide honek, besteak proposatzen duen bidea nik hitz horretaz jardunez neuk soilik egingo nukeen bidea bezain interesgarria edo interesgarriagoa dela onartu beharrarekin, hain zuzen.

Gainera, tresna honek lana norberaren erantzukizun gisa sentitzetik askatuko nau, ekuazioa «ebatzi» behar duena neu soilik izatetik.

Hona iritsita, nabarmendu behar dugu induskatzaile bat erdiko zirkuluan esertzen den unetik ez dagoela behartuta hitz egitera. Zirkuluan duen presentziarekin lagundu dezake indusketan, benetan entzuteko jarrera aktiboa hartuta. Eta mahai gainean jarri berri den horri pieza berri bat erants diezaiokeela sentitzen duenean esku hartuko du soilik.

Pentsamendu kolektibo hori pieza bat bestearen ondoan kokatzen joatea bezala dela esan dezakegu; pieza horiek zerbait konplexua osatzen dute, eta ondo lotzen zaizkio elkarri. Beraz, inolako arrazoirik gabe pieza batetik bestera jauzi handiak egitea saihestu behar da.

Bestalde, argibide honek ohartarazten duenez, oso kontrako jarrera hartuko du beronekiko induskatzaileak, uste badu indusketa nabarmen desbideratu dela bere helburutik, hau da, hizketagai dugun hitzetik.

Hala bada, induskatzaileak bere sentipen hori helaraz diezaioke taldeari, indusketaren xede den hitza ozen esanez edo indusketa berriro bideratzeko galderaren bat eginez.

Tentsio hori, besteek eta besteen esku-hartzeek gida zaitzaten uztearen edo indusketa hitz jakin horretan zentratzen ahalegintzearen arteko tentsio hori, beti izango da, eta induskatzaile bakoitzak eta gidariak adi egon beharko dute, hori ez dadin bihurtu arazo elkarrekin aurrera egiteko orduan. Indusketetan sortzen den arazo handietako bat hauxe da: arrazoia izateko barne-mekanismoa abian jartzea saihestu ezin duten induskatzaileak izatea tartean.

Hitzen indusketa beste muturrean dago, gauza baten inguruan arrazoia izateagatik eztabaidatzearen bestaldeko muturrean.

Besteari jarraitzeko emandako argibideak arrazoia izan nahi izate horren bulkada baztertzea ahalbidetu behar dio induskatzaileari, eta aukera eman behar dio, gainera, parte-hartzaileetako bakoitzarentzat harrigarria eta adierazgarria izan daitekeen elkarrizketa bateratu batean aurrera egiteko.

Zirkuluaren erdian gertatzen da guztia, eta ez dago erabateko nagusitasuna duen induskatzailerik. Beraz, gerta daiteke esku-hartzeetako batek indusketa suntsitzea. Arau honek alderdi hauskor hau ere onartzen du: indusketan, ezin du inork dena kontrolatu, eta, hain zuzen ere, konplexutasun hori bizitzea da praktika kolektibo honek proposatzen duen gauzarik garrantzitsuenetako bat.

3. argibidea. Galdetzea

Indusketa dinamizatzeko, erabili horrelako galdera moduak:
· Norbaitek esan duen zerbait ulertu ez dudalako. (Errepikatu dezakezu?)
· Esan den zerbait berriro ere entzun dadin nahi dudalako. (Errepikatu dezakezu?)
· Zenbait induskatzailek egindako baieztapenen sekuentzia bat berriro entzun dadin nahi dudalako. (Errepikatu dezakezue ...-tik hasita?)
· Induskatzaile bati termino bat edo esan duen zerbait hobeto azaltzen edo definitzen laguntzeko.
(Zehaztapenerako galdera.)

Hirugarren argibideari buruzko oharrak:

Indusketarako prestatzeko xedez maieutikari buruz emandako azalpenean adierazi dugunez, komunikaziorako eta elkarrizketarako bide garrantzitsua da galdera. Baina ikusi dugu urak gure bidera ekartzeko ezkutuko modu gisa galderak erabiltzeak zer arrisku dituen ere. Lehen ere ohartarazi dugunez, galera modu zehatz bat erabiltzeko gomendioa egiten du arau honek: Errepikatu dezakezu?

Hitzen indusketa-lanerako garrantzi handia duen elementu bat sartuko da jokoan puntu honetan: errepikapena.

Alde batetik, guk guztiok errepikapenaren bidez ikasten dugu hizketan, helduek esaten dutena imitatuz, hitz bat edo esaldi bat behin eta berriro errepikatuz; mekanismo horri esker, hitz hori gure barrenean sartzen da azkenerako.

Bestetik, badakigu hizkuntza, neurri handi batean, erritmoa dela. Eta, hain zuzen ere, erritmoan daude batez ere hizkuntzaren adierazteko indarra eta esanahiak.

Hala, arau honetan, alderdi hauek bateratuko ditugu: zerbait ulertzen ez dudanean galdera egiteko dudan beharra, eta, induskatzaile batek aurrez esan den zerbait berriro entzun edo errepikatu dadin nahi duenean, horretarako dagoen aukera; esaldi bat izan daiteke, edo zenbait esaldi, bata bestearen atzetik.

Hizketan ikasten dugunean bezala, errepikapen horiei esker, adierazitako horiek barruraino sartuko zaizkie gainerako induskatzaileei, sakonago, eta, aldi berean, barne-musikaltasun batez jantziko dute indusketa bera. Indusketan jarraitzeko gidari izan behar du musikaltasun horrek.
Egiaz, nahiko ohikoa da norbaiti esaldi bat 3 aldiz, 7 aldiz edo X aldiz errepikatzeko eskatzea. Errepikapenaren bidez, gune poetikoago eta musikalago batean sartuko da indusketa, eta esaldi horrek modu berezi batean egingo du durundi.

Honaino iritsita, garrantzitsua da argitzea indusketetan erabiliko den tresna nagusiak baieztapena izan behar duela. Galdera neurriz erabili behar da, indusketa bat erantzunik gabeko galdera sorta bihurtzen bada, ez baikoaz inora.

Beraz, zerbait ez baieztatzeko babes gisa galdera erabiltzea saihestu behar dugu, baita porrot egiteko arriskua izanda ere.

Eta, azkenik, galderari lotuta, garrantzitsua da kontraesan bat ere azpimarratzea, indusketari beti halako tentsio bat eragiten diona:

Alde batetik, kontuan hartu behar da ezin dela utzi galderarik erantzunik gabe; ezin dugu baztertu galdera bakar bat ere, eta, bestalde, jakin behar

dugu, zenbaitetan, indar handia hartzen duela galdera bat erantzunik gabe uzteak eta, ondoren, isilune sendo bat egiteak. Induskatzaile bakoitzak bere erantzunekin bete dezake bere barrenean etenaldi hori, eta ez du zertan horiek besteei ozen adierazi.

Badaude erantzunik gabeko galderak, indar handiz induskatzen dutenak.

4. argibidea. Ez erabili horrelako hitzik: 'nik', 'pentsatzen dut', 'uste dut'

Laugarren argibideari buruzko oharrak:

Oso iradokizun argi eta soila da honako hau. Esaldi bati ekiteko formula klasikoaren aurrean –«Nik uste dut», «pentsatzen dut», «esango nuke...»– beste modu alternatibo batzuk bilatu behar dituzte induskatzaileek.

Hizkuntzaren formulaziotik bertatik hasita *ni* horretatik irteteko ahalegin horrek hizkuntza beste molde batzuetara behartzeko moduak asmatzera bultzatuko ditu parte-hartzaileak, eta hizketarako espazio komun bat sorrarazten lagunduko du segituan. Ahots komun bat bilatzen.

Orain arte metatutako esperientziaren arabera, horixe da mundu guztiak azkarren onartzen duen arauetako bat, kontrakoa pentsatu daitekeen arren.

Hemen, bat egiten dute lanaren formak eta funtsak. Induskatzaileek beren mundu ideologikoa albo batera uzteko eta gainerakoekin magma komun bat landu eta bilatzeko ahalegina egin dezaten nahi badugu, lehen-lehenik egin beharrekoa ni horretatik hitz egiteari uztea da.

Induskatzaile bakoitzaren egoak ahalik eta bazterren geratu behar du lanean ari garenean, eta arau honek, zorrotza eta etengabe izan behar duen arau honek, hori lortzen laguntzen du.

5. argibidea. Horrelako hitzak saihestea: 'zeren arabera dagoen', 'bai, baina…', 'hori erlatiboa da…'

Horrelako adierazpenak erabiltzea saihestu behar da beti, aurreko esku-hartzea gutxiesteko joera baitute.

Bosgarren argibideari buruzko oharrak:

Indusketa batean, uneoro saiatzen bagara guztion artean bide bateratu bat hartzen hitzaren zentzuan sakontzeko, beste induskatzaileen ekarpenak erlatibizatzen dituzten adierazpenak erabiltzeak ordura arte egindako lana desegitea edo zalantzan jartzea eragingo du, eta, beraz, eraikitzen ari ziren indusketa-galeria «eroriko» da.

‘Zeren arabera dagoen’ esamoldea erabiltzeak berehala adierazten duena da badagoela hitz egiten ari garen horri heltzeko beste modu bat, gutxienez; beraz, beste zulo edo indusketa-aukera bat irekitzen du.

Garrantzitsua da gogoratzea indusketa egiten ari garenean ez dugula inoiz balioetsi behar induskatzaile batek ‘bai, baina nire ikuspegiaren arabera...’ esaten duenean proposatzen ari den aukera ordura arte taldeak zehaztutako bidea baino egokiagoa, egiazkoagoa edo koherenteagoa den. Izan ere, badakigu indusketak ez duela konponbide edo definizio adostu bat bilatu nahi, baizik eta pentsatzeko edo hitzera hurbiltzeko bide bat hartu, eta azken ondorioetaraino jarraitu nahi duela.

‘Bai, baina’ esaten duenean, hitz orori buruzko baieztapen orotan konplexutasun handiagoa dagoela erakutsi nahian, bide edo zulo bakar batetik jaistea eragotzi nahi du induskatzaileak, zulo hori oso sinplea dela iruditu arren.

Hitzaren gaineko lurra atera beharrean, ‘baina’ horrek beste ikuspegi edo begirada batzuk gehitzen ditu; ikuspegi edo begirada horiek interesgarriak izan daitezkeen arren, ez zaizkio indusketari gehituko behin horrek noranzko jakin bat hartu duenean.

Hiru adierazpen horien artean, hau da induskatzaile batek taldea eraikitzen ari den pentsamenduari ez diola arreta handiz jarraitzen adierazten duen esamolde nagusia: ‘bai, baina hori erlatiboa da, izan ere... ‘ Horrelako jokaerarekin, induskatzaileak zalantzan jartzen du ordura arte hitzari buruz esan den guztia, eta indusketa bere eremura eramateko ahalegina egiten du.

Dena izan daiteke erlatiboa, jakina, baina, indusketa-lanean, induskatzailearen jarrerak eta gogoak guztiz kontrakoa izan behar du. Esaten den guztiak balioa du eta, testura edozein dela ere, une bakoitzean hitzez adierazten denetik abiatuta lan egin behar da.

Horixe da, hain zuzen, egin behar ez dena, adierazpen horien edo antzeko beste batzuen bidez ordura arte esandakoa zalantzan jarri; izan ere, horrek ez dio batere laguntzen indusketaren alde garrantzitsuenari eta zailenari, hau da, ez dio laguntzen hitzaren indusketa-lanean toki komun bat bilatzeko zereginari.

Induskatzailearen lana, bigarren argibidean azaltzen denez, aurreko induskatzailearen esku-hartzeari jarraitzea da, norberaren pentsamendu oro ahantziz.

Eta hori egiteko, ahalik eta ahalegin handiena egin behar da indusketan esaten den guztia modu aktiboan eta sakonean entzuteko. Besteek diotena ahalik eta azkarren nire pentsamenduaren xede bihurtzea lortu behar da, ni ere begirada hartatik pentsatzen jar nadin.

Beraz, gogor eutsi beharko diot beste induskatzaile batzuen esku-hartzeen aurrean nire buruan ezinbestean sortuko diren balio-judizio etikoak, moralak edo estetikoak egiteko mekanismoari.

Indusketak, hain zuzen ere, aukera ematen dio induskatzaile bakoitzari besteak iradoki duen bidetik jarraitzeko, nahiz eta esaten ari dena zentzugabekeria hutsa iruditu guri. Baita leku edo testura ezezaguna eta are kezkagarria iruditzen bazaigu ere.

Hitz bakoitzaren misterioari gure barnera sartzen utzi behar diogu.

Hori da induskatzaile bakoitzak praktika honetan egin dezakeen barne-jauzi sakona. Pentsamenduaren gimnasia egin behar da, malguagoa izateko, tokiz mugitzeko eta aurretik ezagutzen ez genituen pentsamendu eta testuretan murgiltzeko.

6. argibidea. Hitz edo pentsamendu bat kristalizatzen denean

Une garrantzitsua da, talde osoa jabetzen baita iritsi garela induskatzen ari garen hitzarekin lotutako toki batera, eta toki horrek garrantzi berezia duela.

Hori gertatzen bada, taldeak aukera hauetakoren bat hautatu dezake:

· Isilune luze bat egitea, une horren oihartzuna sentitzeko eta gure artera ekartzeko.
· Esandakoa zenbait aldiz errepikatu dezakegu, mantra, kanon edo abesti bat balitz bezala, nabarmentzeko.

Seigarren argibideari buruzko oharrak:

Indusketa-lanarekin, hitzak izan dezakeen *topos* edo toki komun handiena bilatuko dugu, ezagutzen dugunetik ezezagunerako bidea eginez.

Irudi hau lantzen dugu: hitz bat urte askotan erabili ondoren, «hasierako zentzu» hori ezkutatuta geratzen da esanahien, erabileren eta aldaeren beste geruza batzuen azpian.

Horregatik esaten dugu induskatzea hitzaren esanahi asko gezurtatzeko lana ere badela. Gaineko geruzak kentzea da. Hustea da, berriz aurkitzeko.

Eta arkeologoek, noizean behin, antzinako aztarnategi bat induskatzen dutenean, tresna edo anfora baliotsu baten zati txiki bat aurkitzen badute, gorde egiten dute, eta katalogatu eta garbitu egiten dute, ikerketarako garrantzitsua delako; bide beretik, hitzen induskatzaileek ere, noizean behin, hitz bati buruz esan dugun zerbaitek balio berezia duela sentitzen dugu.

Halakoetan, zerbait kristalizatu edo mamitu dela esango dugu. Kristalizazioaren miraria bikoitza izango da.

Alde batetik, kristalizatzen den esaldia edozeinek esaten duela ere, taldeak, batasun eta osotasun gisa, adieraziko duelako induskatzaile guztien lanari eta ekarpenei esker iritsi direla hara.

Eta, bestetik, inork berariaz adierazten ez badu ere, zerbait kristalizatzen denean, guztiak jabetzen direlako horretaz, gorputz guztiak une berean zeharkatzen dituen eta indusketan ikertzen den ezagutza partekatuaren magma sakon horren existentziaren fede ematen duen erresonantzia sakon eta ahoskatu gabe bat balitz bezala.

7. argibidea. Indusketan hitza hezurmamitzea

Ekintza fisiko baten edo hitzezko ekintza baten bidez, induskatzen ari garen hitzaren esanahia edo mamia indusketa egitean ekintza bizi bihurtu dadin lortzea.

(Adibidea: «Kaka zaharra!!!» = haserrea)

Zazpigarren argibideari buruzko oharrak:

Indusketa batean, gerta daiteke une batean hitzak nahikoa ez izatea. Orduan, induskatzaile batek ekintza fisiko bat egin dezake. Hori gertatzen bada, eta eskuliburu honen bigarren arauari jarraituz, hurrengo induskatzaileek aurrekoak proposatu duen bide fisikotik jarraitu beharko dute lana.

Gerta daiteke hitz baten gainean egindako indusketa jakin baten uneren batean oso toki sakonera iristea eta hitzezko hizkuntza jada tresna egokia ez izatea. Orduan, gorputza eta ekintza fisikoak sar daitezke jokoan, hitzean sakontzen jarraitzeko.

Hala ere, garrantzitsua da proposatutako ekintzak «ekintza performatibo garbiak» izatea, hau da, xumeak, argiak eta itxiak izatea.

Ez litzateke ona izango ekintza teatralago eta narratiboagoetan sartzea, ahozko hizkuntzak egiten duena faltsuki ordezkatu nahi luketenetan.

8. argibidea. Bereizketa bat egitea.

Indusketa jakin batean gauza berari erreferentzia egiteko edo paraleloan erabiltzen ari diren bi hitz bereiztea. Hori egitean, horietako bat aukeratu behar dut, eta haren esanahian sakondu.

Zortzigarren argibideari buruzko oharrak:

Argi dago hitzak ez direla inoiz bakarrik agertzen hizkuntzaren munduan. Edozein hitzen inguruan, edozein motatakoa izanda ere, harekin esanahi-erlazioak ezartzen dituzten beste hainbat hitz daude. Kontrakoa adierazten

dutelako, antzeko esanahia dutelako edo erresonantzia poetikoa dutelako, testuinguru hurbila dutelako, etab.

Beraz, ‘poza’ hitza induskatzea proposatzen bada, litekeena da indusketa horretan bertan beste hitz hauek ere agertzea, adibidez: ‘zoriona’, ‘umore ona’ edo ‘atsegina’.

Indusketan zehar hitz horietako batzuk nahastuta erabiltzean argi ikusten bada ez dugula elkarrekin eta bide beretik sakontzea lortzen indusketaren xede den ‘poza’ hitzaren gainean, induskatzaileetako batek bereizketa bat egin dezake. Bereizketa egiten duenean, nahasten ari diren bi hitzak bereizi behar ditu; esate baterako, ‘atsegina’ eta ‘poza’ bereizi behar ditu, eta palakada bat eman behar du; hau da, ‘poza’ hitza zuzenean lantzeko esku-hartze bat egin behar du.

Horrela, taldeari argi eta garbi adierazten zaio ‘atsegina’ hitzak sortu dituen nahasmenak saihestu egin behar direla, eta indusketa ‘poza’ hitzaren inguruan soilik zentratzen saiatu behar direla.

Oso ohikoa da egoera hori; izan ere, hizkuntzaren gure eguneroko erabileran, elkar ulertzeko, antzeko hitzetara jotzen dugu askotan, ñabardurak egiteko. Hemen, indusketan, ordea, behaketa-eremua murrizten saiatu behar dugu, adimena behartzeko eta tresnak proposaturiko hitzerantz soilik zuzentzeko.

Beraz, pintzel finaren edo bisturiaren antzeko tresna da hau, hitzak ondo zehazteko eta bereizteko; adierazpen edo hitz horiek, elkarrengandik oso hurbil egon arren, ez baitira inola ere gauza bera.

9. argibidea. Aulki hutsa

Indusketa guztietan, sei aulkiz osatutako zirkulu bat egon behar da, eta aulki horietako batek hutsik egon behar du beti. Aulki hori induskatzaile batek edo ikusle batek (indusketa publikoetan) okupatu ahal izango du, indusketaren edozein unetan. Zirkuluan induskatzaile berri bat sartzen denean, lanean ari den norbaitek alde egin behar du, aulki huts bat izateko beti.

Bederatzigarren argibideari buruzko oharrak:

Tresna honek ziurtatu nahi digu indusketa batean zehar parte-hartzaile guztien ahots gehienak entzun ahal izango direla. Aulki hutsak ziurtatzen digu etengabe berrituko direla erdiko zirkuluan hitz egiteko aukera duten pertsonak.

Beraz, eraikitzen joango garen diskurtso bateratua partekatutako diskurtsoa izango da, ahots ugarik sortua.

Zirkulura lanera sartzen den induskatzaileak txanda bat itxaron beharko du beti, lehen esku-hartzea egin aurretik. Arau hori oso garrantzitsua da.

Normalean, indusketaren bigarren zirkuluan gaudenean, erdiko zirkuluan egiten ari diren diskurtsoa isilik entzunez, gure barne-indusketa egiten dugu, eta ideiak, irudiak eta hitzak sortzen dira. Eta, askotan, oso garrantzitsua edo beharrezkoa den eta une jakin batean ekarpen handia egin dezakeen zerbait esateko sartu behar dugula sentitzen dugu. Baina, hori eginez gero, diskurtsoa gure eremura «eramango genuke». Induskatzera sartu nahi duen induskatzaileak txistu txiki bat joko du hori egin aurretik, barruko zirkuluan daudenei sartzeko zorian dagoela jakinarazteko.

Horrela, erreleboa modu lasaian, isilean eta ekintza foniko eta erritmiko batetik abiatuta egingo da, eta oso egokia da hori indusketan lan egiteko modu honetarako .

Indusketak irauten duen bitartean pertsona bakoitzak egiten duen barne-indusketa, dagoen zirkuluan dagoela, hitzaren inguruan harrotutako lurra da.

Norbaitek zirkuluan sartzea erabakitzen duenean, besteei jarraitzeko jarrerarekin egin behar du. Taldeak bizi duen unetik aurrerako ekarpena egin behar du, eta alde batera utzi behar du induskatzaileen zirkulutik kanpo zegoenean pentsatzen zuena edo uste zuena.

Oso garrantzitsua da kontuan izatea zuhurtziaz eta entzute erritmikoarekin aplikatu behar dela bederatzigarren arau hau. Erdiko zirkuluko induskatzaileen taldearen konfigurazioa noiz aldatu behar den ulertzen eta atzematen saiatu behar dugu.

Une batzuetan ona izan daiteke sartzea, energia eta ahotsak berritzeko, nolabaiteko motelaldia dagoela sentitzen badugu. Eta alderantziz, beste une batzuetan sentitu dezakegu ez dela egokia inor sartzea, errespetatu beharreko konexio edo isiltasun maila ona dagoelako.

Entzute hori, azaldu ditugun arau gehienetan bezala, tresnaren erabileraren funtsezko osagaia da, eta induskatzaileak diskurtsoaren «zentzua» entzuteari emandako garrantzi bera edo handiagoa emango dio.

Garrantzitsua da kontuan izatea indusketak aurrera egitearen erantzukizuna elkarrekin lan egiten duen talde osoarena dela, eta, beraz, aulki hutsa jende guztiak duen tresna dela, une oro barneko zirkuluan sartu eta lan egin ahal izateko nahiz sortzen ari den diskurtsoaren erantzunkide egiteko.

Lehen ikusi dugunez, norbaitek ez badu ezer esateko, onena ezer ez esatea da. Eta erdian sartzeko premia edo bulkada sentitzen ez badugu, ez dugu hori egitera behartuta sentitu behar.

Baina, aldi berean, erantzukizun partekatuaren zentzu horrek bere erabakien neurri egokia eman behar dio induskatzaile bakoitzari.

Praktikaren gidaria

Irudi hau ezinbestekoa da edozein indusketatan. Indusketari buruzko begirada orokorra izango duen pertsona da, eta adi behatuko du ea taldea sakontzen ari den eta ahots askok egindako diskurtso bakar baten erresonantzia bateratua aurkitzen ari den, erritmoa eta musikaltasuna errespetatzen ari diren eta, azken batean, indusketa norabait iristen ari den.

Gidaria askatasunez mugitu ahal izango da aretotik, praktika errazteko. Normalean, erdiko zirkulutik kanpo egongo da, baina indusketa-lana egitera ere sar daiteke, eta kanpoko behatzaile orokor gisa jardungo du.

Hauek dira gidariaren oinarrizko eginbeharrak:

· Lan-saio batean induskatuko diren hitzak aukeratzea (behin taldea kohesionatuta dagoenean, beste modu batera egin daiteke hori, taldean, intereseko gaien arabera...).

· Jende guztia zirkuluetan eserita dagoenean, induskatu beharreko hitza iragartzea eta egoki deritzonean indusketa amaitutzat ematea.

Indusketan, gidariak hainbat modutan esku hartu dezake:

· Batetik, zirkuluaren kanpotik, induskatzaileei arauak betearazteko eta zenbait esku-hartze errepikatzeko eskatzeko, hala, indusketa bideratzeko.

· Bestetik, erdiko zirkuluaren barrutik; egoki baderitzo, gidaria erdiko zirkuluan sar daiteke, eta beste induskatzaile bat balitz bezala esku hartu dezake. Taldeari indusketa bideratzen eta sakontzen lagun diezaiokeela uste badu egingo du soilik, eta zirkuluan luzaroan ez egoten saiatuko da.

Induskatu beharreko hitzak aukeratzea

Proiektu honen hasieran, sarrerako testuan adierazitakoaren ildotik, hiru premisa argi hartu ditugu abiapuntutzat:

· Praktika edo elkarrizketa bakoitzean hitz bakarra lantzea.

· Hasierako helburua erabiltzen ez diren hitzak, hitz tabuak edo denboran zehar esanahia asko aldatu duten hitzak induskatzea da.

· Eta, hirugarrenik, ideia argi batetik abiatu behar dugu, «hitzen *korpologia*» deitzen dugunetik. Hau da, hitzak ez dira munduan dauden gauzak izendatzen dituzten elementu soilak, baizik eta hura konfiguratzen eta, batez ere, aktibatzen duten elementuak dira. Hau da, hitz bat esaten dugunean, hitz hori zerbait egiten ari da, eta zerbait aktibatu egiten da.

· Hizkuntzak gure mundu etikoa, estetikoa eta politikoa eratzen du, eta hitz egitean mundua, harremanak eta egiturak eraikitzen ditugu.

Tresna fintzera eraman gaituen ikerketan, beste gogoeta garrantzitsu batzuk agertu dira.

Lehenengo ikerketa-aldian, gure gizartearen oinarri sakonak egituratzen dituzten balio etikoekin lotutako hitzak erabili genituen indusketetan. Horrela, 'justizia', 'ausardia', 'ohorea', 'errukia' eta antzeko hitzak bete-betean sartu ziren induskatu beharreko errepertorioan.

Baina, bestalde, ikerketa-prozesuan zehar ere oso argi ikusi zen errealitate fisiko zehatz bat adierazten duten hitzek indusketa-potentzial oso ahaltsua dutela: 'hortzak', 'begia', 'etxea ', 'zuhaitza', etab.

Hain zehatza eta fisikoa den zerbait induskatzean, induskatzaileek oso azkar aurkitzen dute hurbiltzeko bide komun bat. Hitzetik oso hurbil daude beti, eta esploratzeko eremuak ireki ditzakete, indusketaren helburua galtzeko beldurrik gabe.

Horrelako hitzak induskatzean, deskribapen aristotelikoa errazagoa da, iritzi pertsonalaren esparrua azkarrago desagertzen da, halako arintasun bat dago, normalean askotariko ahotsen parte-hartzea errazten duena, eta umorea organikoki sortzen da. Eta, jakina, sakontasun handia ikus daiteke, lanketa zuzenean edo aurrez aurre egiten ez bada ere.

Beraz, testuinguru eta indusketa bakoitzean gidariak edo taldeak saio jakin batean zer hitz induskatuko dituzten erabaki behar duela abiapuntutzat hartuta, interesgarria da bi hitz mota horiek ezagutzea eta konbinatu ahal izatea, balio filosofiko batek normalean eskatzen duen sakontasunak eta kontzentrazioak gauza fisikoen indusketak busti ditzaten eta, aldi berean, elementu fisiko baten indusketak dakarren zehaztasunak eta arintasunak balioen indusketa trinkoagoak hartu ditzaten.

Indusketa publikoa

Hitzak induskatzeko lana, funtsean, praktika pribatua eta intimoa da. Beraz, bisitari edo ikusle batzuekin partekatzea ez da nahitaezko betebeharra edo helburua.

Nolanahi ere, guk, tresnarekin lan egiteko prozesuan zehar, publikoak direla esan genezakeen indusketak egin ditugu, eta jendea parte hartzera eta indusketa bat egitera deitu dugu.

Horretarako, garrantzitsua da zenbait faktore kontuan hartzea. Dakigunez, indusketa praktika delikatua eta hauskorra da, zentzuz eta nolabaiteko sendotasunez egiteko aldez aurreko entrenamendua eskatzen duena.

Beraz, hitzen indusketa publiko bat egin nahi bada, garrantzitsua da kohesionatutako eta entrenatutako induskatzaile talde bat izatea, tresna horrekin denbora jakin batez praktikatu duena eta erraztasunez erabiltzen dakiena.

Guk orain arte egin ditugun indusketa publikoetan jarraitu dugun protokoloa nahiko erraza da.

Gelako aulkien hirugarren zirkulu bat gehitu behar da, hasiera batean bisitarientzat izango dena. Bisitari bakoitzari indusketarako oinarrizko hamar arauak eman behar zaizkio, eta denbora bat eman behar zaie gidariarekin aztertzeko.

Eta bisitariei eskatu behar zaie indusketaren hasieran denbora tarte bat hartzeko dinamikari behatzeko, esku hartu gabe.

Azkenik, esan behar da, eskarmentu handiagoko induskatzaileak egiten ari diren indusketari behatzeko eta entzuteko denbora hori igarota, edozein pertsona sar daitekeela erdiko zirkuluan eta esku hartu dezakeela indusketan.

Horri buruz dugun esperientziaren arabera, hitz egiteko aukera ematen duen erdiko zirkuluak erakarpen handia eragiten du bisitariengan, askotan, indusketan aktiboki parte hartzen baitute.

Indusketa publikoak oso indartsuak dira; izan ere, tresnaren hauskortasuna, ahotsen aniztasuna eta hizkuntzaren magma subkontzientearen erreberberazio-gaitasuna agerian gelditzen dira eta distira handia egiten dute.

Beste ohar interesgarri batzuk

Indusketaren hasieran, hasierako haztapen esaten diogun une bat izaten da.

Elkarrizketarako lehen gunea da, eta taldea lur azpira zein zulo argi eta zehatzetatik sartuko garen argitzen ari da, denok batera egiteko beherantz.

Eskuarki, hitza lantzeko bideak zein izan daitezkeen zehazteko esku-hartze batzuk izango dira.

Une jakin batean, bizpahiru esku-hartzek bide argi bat zehaztuko dute; izan ere, zorrotz beteko dute besteari jarraitzeko araua, eta, orduan, indusketak norabide zehatza izango du.

Zenbat eta beherago iritsi, zenbat eta hurbilago egon inorganikotik, edo zenbat eta hurbilago ahozko magma subkontzientetik, orduan eta mantsoago joan behar dugu.

Meategi baten indusketarekin konparatzen dugunez, oso behera jaitsi bagara, lur asko izango dugu gainean, eta gaizki emandako edozein urratsek galeria osoa behera erortzea eragin dezake.

Beraz, taldeak uste badu hitz horren jatorrizko magmatik nahiko hurbil dagoela, beharrezkoa da esku-hartze gutxi izatea eta aurreko esku-hartzetik oso hurbil egotea.

Umoreak induskatu egiten du. Arauen zurruntasuna eta itxurazko konplexutasuna aintzat hartuta, eman lezake hitzen indusketaren lanak proposatzen duela hizketaldi edo indusketa horiek oso serioak eta sakonak izan behar dutela. Baina ez du zertan horrela izan.

Aurrez esan da edozein pertsonak egin dezakeela indusketa. Eta horri erantsi behar zaio pertsona bakoitzak oso harreman berezia duela hitzekin, hizkuntzarekin eta besteekin hitz egiteko moduarekin.

Zorionez, bai munduarekin eta bai besteekin hizkuntza-harremanak izateko tresna gisa umorea erabiltzeko dohaina dute pertsona batzuek.

Eta umorea, partekatu beharreko herri-substratuaz ari garenean, elementu garrantzitsuenetako bat da.

Beraz, umoretik egindako esku-hartzeek, askotan, zulo handi bat egin dezakete, eta hitzaren gaineko erresonantzia partekatu argia sortzen dute.

Induskatzen ari garen hitza errepikatzeko aukera dugu.

Indusketaren uneren batean, induskatzaile batek sentitu dezake taldea hitzaren erresonantziatik asko urruntzen duen bide batetik joan dela indusketa. Lana eten gabe egiteko modu on bat induskatzen ari garen hitza behin baino gehiagotan errepikatzea izan daiteke.

«Hitzera itzultzea» esaten diogu horri. Horrela, taldeak indusketa apur bat moteldu behar dela uler dezake; hau da, isiltasun gehiago sortu behar dela eta arreta hitzera zuzendu behar dutela berriro, aurrera jarraitzen saiatzeko.

Batez ere balioekin lan egiten denean, oso baliagarria da balio hori inplikatzen duen adibide bat jartzea. Hori egitean, ekintza edo egoera bat modu argian zedarritzen ari gara, eta taldeak errazago landu ahal izango du elkarrekin, gertakari jakin eta partekatu batetik abiatuta sakontzeko.

Oso garrantzitsua da, halaber, zehaztasun guztiei erreparatzea. Hau da, induskatzaileek oso erne eta adi egon behar dute zirkuluaren erdian sortzen den guztiaren aurrean, eta ezaguna egiten zaien guztia aprobetxatzen saiatu behar dute, indusketan sakonago joateko. Galdera guztiei erantzun behar diete, isiltasun adierazgarriaren bidez bada ere; ez dute alferrik galtzen utzi behar karga poetiko baliotsua duen irudirik, oso adi egon behar dute kristalizazioen aurrean, eta indusketaren erdian harri edo harkaitz bat aurkitzen duenean taldeak aurrera egiten saiatu behar du. Onena harri edo harkaitz horri, zailtasun horri, aurre egitea izango da, leherraraztea, esploratzen jarraitu ahal izateko. Zailtasun baten aurrean taldeak beste bide bat hartzen badu eta zaila dena alde batera uzten badu, ez da sakontzen ari, eta errealitatean zulo handi bat egiteko aukera paregabea galduko du.

Azkenik, konpromisoaren ideia ere funtsezkoa da. Indusketa-lanean, taldeko kide guztiek elkarrekin induskatzeko borondatearekiko konpromiso irmoa erakutsi behar dute. Lan gogorra, zaila eta neketsua da, eta kontzentrazio handia eskatzen du.

Esku hartzen duten ahots guztiak behar-beharrekoak dira indusketa aurrera eramateko, eta ideia horrekin lotuta ulertzen dugu konpromisoa; hala, horretan sakontzea guztion erantzukizuna da.

Hasierako isiltasuna
Induskatzaile guztiei sintonizatzeko, barneratuta ditugun aurreiritziak eta aurrez landutako ideiak zokoratzeko eta kontzentrazioa sustatzeko espazioa eta denbora emateko balio du.

Besteari jarraitzea
Balioa eman behar diet kideen "palakadei", eta, ahal dudan guztietan, haien esku-hartzeek iradokitzen duten bide edo tokietatik jarraitzen saiatuko naiz. Erreminta honi gogor aurre egingo diot, soil-soilik, bide horrek taldea indusketaren xedetik erabat desbideratzen duela ikusten badut.

Galdetzea
Norbaitek esan duen zerbait ulertu ez dudalako. (Errepikatu dezakezu?)
Esan den zerbait berriro ere entzun dadin nahi dudalako. (Errepikatu dezakezu?)
Zenbait induskatzailek egindako baieztapenen sekuentzia bat berriro entzun dadin nahi dudalako. (Errepikatu dezakezue, ...-tik hasita?)
Induskatzaile bati termino edo esandako gauza bat hobeto azaltzen edo definitzen laguntzeko. (Zehaztapenerako galdera)

Ez erabili horrelako hitzak: ***NIK, PENTSATZEN DUT, USTE DUT***

Saihestu horrelako hitzak: ***zeren arabera dagoen; bai, baina...; hori erlatiboa da...***

Hitz edo pentsamendu bat kristalizatzen denean:
Isilune zabal bat egin dezakegu, haren oihartzuna entzun dadin.
Zenbait aldiz errepikatu dezakegu, mantra, kanon edo abesti bat balitz bezala, nabarmentzeko.

Indusketa garaian hitza hezurmamitzea
Ekintza fisiko baten edo hitzezko ekintza baten bidez, induskatzen ari garen hitzaren esanahia edo mamia indusketa garaian ekintza bizi bihurtu dadin lortzea.

Bereizketa bat egitea
Indusketa jakin batean gauza berari erreferentzia egiteko edo paraleloan erabiltzen ari diren bi hitz bereiztea. Hori egitean, horietako baten alde egingo dut, eta zer esan nahi duen sakonduko dut.

Hutsartea
Indusketa-zuzendariak induskatzaileei hutsarte bat egiteko ahalmena eman diezaieke, denbora horretan zirkuluaren erdian biltzeko, indusketa ebaluatzeko eta zer puntutatik aurrera jarraituko duten adosteko.

Aulki hutsa
Indusketako zirkulu orotan, sei aulki izango dira, horietako bat hutsik dagoelarik.
Indusketaren garaian, induskatzaile bat edozein unetan eser daiteke aulki horretan.

Induskatzaile berri bat sartzen denean, lanean ari den norbaitek alde egin behar du, aulki bat beti hutsik dagoelarik.

Induskatzaile berriak hitz egiteko txanda bat itxaron beharko du gutxienez. Horrela, indusketan parte hartzeak esku-hartzea baino, entzutea lehenesten duelako ideia indartzen da.